

Xabier Etxaniz Erle


EHUKO IRAKASLEA

Goirizelaiaren ordua

Abendu hasieran EHUko hauteskundeak irabazi ondoren ikasketa plan berriak martxan jartzeko prozesuan erabat murgildurik dago errektore taldea. Bologna prozesuaren barruan –titulazioek Europa mailan balio izatea eta irakas-gunea ikasleengan finkatzea, ikasketa prozesuan alegia, eta ez irakasleengan–, edo horrekin batera etorri zaigu ikasketa planak aldatzeko unea.

Zalantzarik gabe oraintxe bizi dugu prozesu horretako unerik garrantzitsuenetarikoa bat; martxan jarriko diren –eta ken daitezkeen– titulazioak erabaki behar dira, eta horrekin batera titulazio horiek nola gauzatuko diren. Bi erabaki dira, beraz, une honetan –datozen bizpahiru hilabeteetan– hartu beharrekoak, eta horien arabera Bolognako prozesu hori onuragarria edo kaltegarria izan daiteke gure gizartearentzat.

Araba aldean eztabaida piztu duen lehen kontua Letren fakultatean sorrarazi den giro gaiztoa izan da; antza zenbait filologia kolokan daude ikasle kopuru txikia dela eta. Negoziazio prozesu batean sartu beharko dira filologietakoak –eta beste zenbait titulaziotakoak EHU–, errektore taldea eta Jaurlearitzaokoak. Irtenbide ugari egon daitezke, titulazioak –berez duten balioagatik– man-



ALEX LARRETXI

tendu ikasle gutxirekin, kurtso komun batzuk ezarri lehen urteetan ikasle talde handiagoak sortuz... Arazoa serioa izanda ere ez da ni gehien kezkatzen nauena. Askoz larriagoa iruditzen zait erreforma honen inguruan azterketa orokorrik ez ikustea, irakasteko modua aldatu behar bada zer nolako eragina izango duen horrek ikastaldeetan. Ez al da irakaslerik soberan titulazio batzuetan eta beste batzuen beharra besteetan? Zertarako balio izan du azken urteotan unibertsitateko irakasleok jaso izan dugun formazioak? Zertarako prestatu gara irakasteko eta ebaluatzeko era aldatzeko?

Gestioan urteetako esperientziaren ondoren, eta prozesu hau hobetzeko aukera bezala ikusi ondoren, une honetan EHUko zuzendaritza taldeak erabaki argiak hartu behar dituela uste dut. Eta ez titulazioek Europa mailan balio izateko –hori legeak ezarri baitu–, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko baizik. Une honetan irizpide ekonomikoa garrantzitsua izanik ere, ez da bakarra. Ala norbaitek uste du ikasleen formazioa pertsonalizatu samarra egin daitekeela 80 ikasleko taldeetan?

Une erabakigarrian gaude. Bidegurutze egokia hartuko al du abiadura bizian Goirizelaiak gidatzen duen kotxeak? ■

« Une erabakigarrian gaude.


Bidegurutze egokia hartuko al du

abiadura bizian Goirizelaiak

gidatzen duen kotxeak? »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ohituta zegoen. Gutxi batzuk gainean, goiko solairutan, bakarren bat parean kontu eskale. Idazkaria konpartitua, gai ilunen zuritzaile eta hesi. Aurretik ez zuen fundamentuzko lanposturik, garai bateko fabrikak erreka jo eta langabearenak amaituta. Orain aldiz, kalefazio eta haize freskodun bulegoa dohainik. Kotxea ere, ordainduta. Soldata, langile kualifikatuta baino hobetagoa eta Visa txartela kontablearen kontrolpean. Astean lau bat eguneko otordua libre, lanpostuaren ardurak hala baimenduta. Herriko zinegotzi aukeratu zuten. Zortzi bat urte egin eta Gasteizko bidea hartzeko zoria eskaini zioten. Dozena

Epelean

urte badaramatza bertan. Norbait da, asteburuetan herrira egin eta inoiz baino akonpainante gehiago du. Eskuzabal aritzen da, ez omen da zuhurra berarekin dabilzanek diotenez. Sortzez euskalduna, ez omen du oraingo euskara idatzia errez irakurtzen, ez du behar. Arduratuta omen dabil oraingo egoera berrian, ez daki luzatuko ote dioten gaurkoa. Jubilatzeke garaia urrun samar du eta hasia da eskuin-ekzker egutera laboralaren bila. Jada, ba omen du baten eta bestearen laguntza hitza. Hala ere ez dago lasai, lantoki pribatuetan emaitzak dira nagusi. Ez daki zer den lehiatzea ogibidean. Gizajoa, hainbeste eman herriaren alde eta orain hau. Ez dago eskubiderik. ■